


EUSKARA

URTARRILA OTSAILA MARTXOA 2020



AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO

**B**ilbao

ARTE BIZIAK / DANTZA **MAR. 12** (ostg.)

**STEVE  
PAXTON**  
Programa publikoa

# Ion Munduate

## *Goldberg Versions*



Ion Munduate. *Goldberg Versions*

Ion Munduate artistak *Goldberg Versions* pieza aurkezten du *Steve Paxton. Drafting Interior Techniques* erakusketaren barruan. *Goldberg Versions* lanean Steve Paxtonek 1985. urtetik 1992. urtera bitartean dantza bat-batekoetatik sortuz garatu zuen jatorrizko lanean oinarritutako lan prozesua erakusten da. Paxtonek Walter Berdinekin batera grabatu zuen bideoaren inguruan egin du lan *Ion Munduatek*, Ana Buitrago koreografoarekin elkarlanean.

**Artistak deskribatzen duen moduan, «*Goldberg Versions* lanean badaude lehenagoko nire *Translation* proiektuarekiko elementu komun batzuk, eta horiek osatu dute pieza berri honen oinarria: mugimenduaren oharrak idaztea eta lortu nahi dena gauzatzera iristeko jarraibide jakinak idatziz jasotzea, eta, azkenik, material koreografikoa osatzeko lehendik badagoen pieza batean oinarritzea».**

Bachen *Goldberg Bariazioetako* musika, Steve Paxtonek Bariazioen inguruan sortutako mugimendu-pieza eta Glend Goulden pianoz egindako interpretazioa dira, gehitu duenez, gogoeta egiteko eta bilatzeko hiru elementu nagusiak. Zehaztu duenaren arabera, «Hiru une horien artean zerbait askatzen da bien artean; Gouldi dagokionez, Bachen musika ulertzeko moduan muturrerainoko teknikan, eta, Paxtoni dagokionez, mugimendua, inprobisazioa eta musika ulertzeko moduan, biak ala biak exekuzioaren zailtasuna gainditzen ari direnaren itxura gauzatzen duen soiltasun, arintasun eta jarioarekin».

**ION MUNDUATE** (Donostia, 1969). Donostian, Madrilan eta Parisen egin zituen ikasketak. 1994an, elkarlan artistiko bizi-biziari ekin zion Blanca Calvorenkin batera, eta hainbat artelan izan dira horren emaitza. Era berean, 'Mugatxoan' sortu zuten 1998an, ikertzeari eta sortzeari eskainitako prestakuntza proiektua. Haien performanceak eta bideoak Europako hainbat espaziotan aurkeztu izan dira; hona hemen: *GoGo*, *Caja Roja y Lucía con zeta* (1998), *Flyball*, *Boj de largo*

(2000), *Astra Tour* (2003-2004), *Extras de arteficio* (2005), *BAT*, *Beautiful Animals Trying* (2006), bai eta *Sin título, en colores* (2010), *Translation* (2013-2016) *Las plumas* (2017) eta *Alfabeto Móvil* (2017) ere.

2015ean Gure Artean saria jaso zuten 'Mugatxoan' proiektuarekin, arte bisualen arloan egindako jarduera horrekiko aitortza bezala. Tailer eta mintegi ugari izan da irakasle, bai eta artista gazteen hainbat piezaren tutorea ere.

////////////////////  
**Martxoak 12, osteguna**  
20:00  
Lantegia 1  
8€ / 6€ Az Txartelarekin  
Sarrerak: Az Info eta  
[azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)

////////////////////  
**FITXA ARTISTIKOA**

Ion Munduaterekin  
**Mugimendu-laguntzailea:**  
Ana Buitrago  
**Arte- eta ekoizpen-laguntzailea:**  
Blanca Calvo  
  
Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailaren I. Dantza  
Ekoizpenaren laguntzarekin  
eta Dantzagunearen  
bultzadarekin  
Obra Tabakalera ekoizti da,  
Tabakalera berak emandako  
laguntzarekin

////////////////////

////////////////////